

# ATARIKO PROBA

## 4.HE

# A eredua

**1.- Aukera ezazu OKER dagoen esaldia.**

- a) Probak amaitzen direlarik, organo eskudunari bidaliko zaio gainditu duten hautagaien zerrenda.
- b) Ebazpen judizialak, edozein formatakoak direlarik ere, Europar Batasun osoan aitortuko dituztela bermatzeko prozedurak zehaztuta daude.
- c) Dagoeneko 7.564 errenta aitorten aurkeztu dira, horietako gehienak itzultzekoak direlarik.
- d) Euskarri informatikoek espediente osoa jaso beharko dute, legeak zehaztutako egiaztagiria barruan direlarik.

**2.- Bila ezazu "emakida" hitzaren definizioa.**

- a) Prozesu baten ondorioa, prozesua bera ebaluatzeko irizpide nagusietako bat dena. Adierazletzat erabiltzen denean, emakida helburuarekin konparatzen da, eta geroko doitze-prozesua atzerelikaduraz egiten da (adibidez, PDCA zikloan).
- b) Gobernuak partikular edo enpresa bati eskubidea ematea da, kanon baten truke jabari publikoko parte bat ustiatzeko edo zerbitzu publiko bat kudeatzeko.
- c) Ibai-ebakidura batetik iragaten den ur-jarioa, bolumen denbora-unitateko eran adierazia (adib. metro kubikoak segundoko).
- d) Lur batek uzta emateko duen ahalmena da. Errendimenduan eragina duten faktoreen funtzio konplexua da, aldaketa askoren mendekoa delako.

**3.- Aukera ezazu testuarekin bat datorren esaldia.**

"Epaileak edo auzitegiak, bere jurisdikzioan diharduela, legeak zigortu ez duen egite edo ez-egite bat dagoela jakiten badu, eta zigortzeko modukoa dela uste badu, ez du prozedurarik hasiko egite edo ez-egite horren inguruan eta Gobernuari azalduko dio zeintzuk diren egite edo ez-egite horri zigorra ezartzeko dauden arrazoiak".

- a) Epaileak edo auzitegiak, lehendik zigortutako ez-egite bat dagoela jakiten badu, Gobernuari azaldu beharko dizkio zigorra ezartzeko dauden arrazoiak.
- b) Epaileak edo auzitegiak, ez-egite bat zigortzeko modukoa ez dela uste badu, Gobernuari azalduko dizkio prozedurari ekiteko leudekeen arrazoiak.
- c) Epaileak edo auzitegiak, zigortu gabeko egite bat dagoela jakiten badu, ez du prozedurarik hasiko egite horren inguruan.
- d) Epaileak edo auzitegiak, legeak zigortu gabeko egite baten berri baldin badu, prozedurari ekingo dio, baldin eta bere jurisdikzioan badihardu.

**4.- Aukera ezazu OKER dagoen esaldia.**

- a) Gobernu batzordeak oraindik ez du erabaki S-3 poligonoan lantegi berriak eraikitzeko baimenik emango baduen.
- b) Gobernu batzordeak oraindik ez du erabaki S-3 poligonoan lantegi berriak eraikitzeko baimenik emango duenetz.
- c) Gobernu batzordeak oraindik ez du erabaki S-3 poligonoan lantegi berriak eraikitzeko baimenik emango duen.
- d) Gobernu batzordeak oraindik ez du erabaki S-3 poligonoan lantegi berriak eraikitzeko baimenik emango duen ala ez.

**5.- Aukera ezazu puntuazio-markak egoki jarrita dauzkan aukera.**

- a) Indargabetuta geratzen dira dekretu honetan xedatutakoaren aurka doazen maila bereko eta apalagoko xedapen guztiak, ondokoak bereziki: 301/1988 Dekretua, abenduaren 13koa, Emakunderen antolaketa eta jardute-egitura ezartzen duena; 132/1990 Dekretua, maiatzaren 15ekoa, Zuzendaritza Kontseiluaren funtzionamendurako erregimena ezartzen duena; eta 78/1998 Dekretua, apirilaren 27koa, Berdintasuna Garatzeko Iragarkien Aholkularitza eratzeko dena.
- b) Indargabetuta geratzen dira dekretu honetan xedatutakoaren aurka doazen maila bereko eta apalagoko xedapen guztiak: ondokoak bereziki, 301/1988 Dekretua, abenduaren 13koa, Emakunderen antolaketa eta jardute-egitura ezartzen duena; 132/1990 Dekretua, maiatzaren 15ekoa, Zuzendaritza Kontseiluaren funtzionamendurako erregimena ezartzen duena eta 78/1998 Dekretua, apirilaren 27koa, Berdintasuna Garatzeko Iragarkien Aholkularitza eratzeko dena.
- c) Indargabetuta geratzen dira dekretu honetan xedatutakoaren aurka doazen maila bereko eta apalagoko xedapen guztiak: ondokoak bereziki, 301/1988 Dekretua, abenduaren 13koa, Emakunderen antolaketa eta jardute-egitura ezartzen duena; 132/1990 Dekretua, maiatzaren 15ekoa, Zuzendaritza Kontseiluaren funtzionamendurako erregimena ezartzen duena; eta 78/1998 Dekretua, apirilaren 27koa, Berdintasuna Garatzeko Iragarkien Aholkularitza eratzeko dena.
- d) Indargabetuta geratzen dira dekretu honetan xedatutakoaren aurka doazen maila bereko eta apalagoko xedapen guztiak, ondokoak bereziki: 301/1988 Dekretua, abenduaren 13koa, Emakunderen antolaketa eta jardute-egitura ezartzen duena; 132/1990 Dekretua, maiatzaren 15ekoa, Zuzendaritza Kontseiluaren funtzionamendurako erregimena ezartzen duena; eta 78/1998 Dekretua, apirilaren 27koa, Berdintasuna Garatzeko Iragarkien Aholkularitza eratzeko dena.

**6.- Bete ezazu hutsunea termino egokia aukeratuta.**

Nafarroako Foru Erkidegoan dauden ondasun ..... baloratzeko, merkatuan duten batez besteko prezioa egiaztatzeko metodoa erabili zen. Prozedura hori Nafarroako eskualde guztietako etxebizitzien eta haien eranskinen balioa eta ezaugarriak biltzen dituen lagin baten azterketa estatistikoaren emaitza izan zen.

- a) higikariak
- b) higiezinak
- c) higigarriak
- d) higikorrak

**7.- Aukera ezazu ondorengo testuari ondoen egokitzen zaion izenburua.**

“Informaziorako sarbidearen globalizazioa teknologia berriak Informatikaren eta Telekomunikazioen alorretan aplikatuz dator, horiek munduko edozein aldetako hainbat jardueratako sektoreei buruzko informaziora iristeko modu eroso eta azkarra bideratzen baitute eta teknologia alor biotan ezagupen berezirik behar ez baita”.

- a) Globalizaziorako sarbidearen eragina.
- b) Telekomunikazioen abiadurak ezagupen bereziak eskatzen ditu.
- c) Globalizaziorako sarbidearen ondorioak erosoak eta azkarrak dira.
- d) Teknologia berrien tokia Informazioaren Gizartean.

**8.- Aukera ezazu OKER dagoen esaldia.**

- a) Idazleak argitaratu duen liburuaren berri eman zuen jendaurrean, eta aurkezpena eta gero, elkarrizketak eskaini zizkien kazetariei.
- b) Idazleak argitaratu duen liburuaren berri eman zuen jendaurrean, eta aurkeztu ondoren, elkarrizketak eskaini zizkien kazetariei.
- c) Idazleak argitaratu duen liburuaren berri eman zuen jendaurrean, eta aurkezpenaren ondoren, elkarrizketak eskaini zizkien kazetariei.
- d) Idazleak argitaratu duen liburuaren berri eman zuen jendaurrean, eta aurkeztu eta gero, elkarrizketak eskaini zizkien kazetariei.

**9.- Aukera bat EZ da ondo txertatzen hutsunean. Zein?**

Proposamenak Administrazioari ez dakarkio inolako kosturik eta, ....., ez du sortzen kargarik, ezta aurrekontu ondorio zuzenik ere.

- a) hortaz
- b) horregatik
- c) horrenbestean
- d) horrela

**10.- Non dago “aurrekari” OKER erabilia?**

- a) Kataluniako errepublikazaleek Aragoiko Koroaren egoera federazio modernoekin homologatu zuten, federalismo modernoari aurrekari historiko ohoragarriak aurkitu guran.
- b) Administrazio Kontratazioaren Aholku Batzordeak ondorio horietarako beharrezko diren zehaztasun eta aurrekari guztiak eskatu ahal izango dizkie legean aipatutako agintariei eta organoei.
- c) Horrelakoetan, epaileak zigorra kentzea erabakiko du eta Zigortu eta Auzi-iheslarien Erregistro Nagusiko atal berezian egindako inskripzioa ezerezteko aginduko du. Zigor-aurrekari hori ez da inongo ondoretarako ere kontuan hartuko.
- d) Administrazioa aktiboa da ondare kontuetan, eta industri ondarearen ikerketa, zabalkunde eta zainketa prozesuetan aurrekari izan da.

**11.- Zein da besteekin zer ikusirik EZ daukan esaldia?**

- a) Barne antolaketarako arauak indarrean diren arte, auziak erabaki gabe jarraituko du.
- b) Barne antolaketarako arauak indarrean diren artean, auziak erabaki gabe jarraituko du.
- c) Barne antolaketarako arauak indarrean diren bitartean, auziak erabaki gabe jarraituko du.
- d) Barne antolaketarako arauak indarrean direno, auziak erabaki gabe jarraituko du.

**12.- Aukera ezazu letra larriak eta xeheak egoki jarrita dauzkan aukera.**

- a) Garapen Iraunkorraren EAeko Ingurumen Estrategia 2002-2020 Jaurlaritzaren Kontseiluak sortu zuen 2002. urtean, eta iraunkortasunerantz aurrera egiteko Euskal Autonomia Erkidegoak (EAE) lortu nahi dituen jomugak eta helburuak ezartzen ditu. Estrategiaren konpromiso ugarietako bat, oro har, Euskal Administrazio Publikoaren zerbitzura lan egiten duen pertsonalari zuzendutako ingurumenari buruzko prestakuntza-plan bat lantzea zen.
- b) Garapen Iraunkorraren EAeko Ingurumen Estrategia 2002-2020 jaurlaritzaren kontseiluak sortu zuen 2002. urtean, eta iraunkortasunerantz aurrera egiteko Euskal Autonomia Erkidegoak (EAE) lortu nahi dituen jomugak eta helburuak ezartzen ditu. Estrategiaren konpromiso ugarietako bat, oro har, Euskal Administrazio Publikoaren zerbitzura lan egiten duen pertsonalari zuzendutako ingurumenari buruzko prestakuntza-plan bat lantzea zen.
- c) Garapen Iraunkorraren EAeko Ingurumen Estrategia 2002-2020 Jaurlaritzaren Kontseiluak sortu zuen 2002. urtean, eta Iraunkortasunerantz aurrera egiteko Euskal Autonomia Erkidegoak (EAE) lortu nahi dituen Jomugak eta Helburuak ezartzen ditu. Estrategiaren konpromiso ugarietako bat, oro har, Euskal Administrazio Publikoaren zerbitzura lan egiten duen pertsonalari zuzendutako ingurumenari buruzko prestakuntza-plan bat lantzea zen.
- d) Garapen Iraunkorraren EAeko Ingurumen Estrategia 2002-2020 Jaurlaritzaren Kontseiluak sortu zuen 2002. urtean, eta iraunkortasunerantz aurrera egiteko Euskal Autonomia Erkidegoak (EAE) lortu nahi dituen jomugak eta helburuak ezartzen ditu. Estrategiaren konpromiso ugarietako bat, oro har, Euskal Administrazio Publikoaren zerbitzura lan egiten duen pertsonalari zuzendutako Ingurumenari Buruzko Prestakuntza-Plan bat lantzea zen.

**13.- Bila ezazu "eskuordetza" hitzaren definizioa.**

- a) Zerbait (ondasunak, eskubideak, aginpideak...) eskuz edo jabez aldatzea.
- b) Administrazio-egintzen funtsezko baldintza edo betekizunetako bat da, eta gai jakin baten ardura erakunde bati edo organo bati dagokiola adierazten du, gaiaren (hirigintza, herri-lanak, etab.) eta lurraldearen (autonomia-erkidegoa, probintzia, udala) arabera.
- c) Politika ekonomikoan finkatutakoaren arabera, ekonomia bideratzeko agintari ekonomikoek burutzen dituzten zuzeneko eta zeharkako ekintzak.
- d) Organo batek eskumen batzuk beste baten esku uztea da, nahiz eta organo horiek ez izan bata bestearen mendekoak.

**14.- Zein da gaiaren aldetik desberdina den esaldia?**

- a) Kazetariak informazioa aztertu, pertsona bakoitzari interesatzen zaiona aukeratu eta eskaintzera jo behar du.
- b) Kazetaritzaren etorkizuneko funtzioa informazioa ordenatzea izango da batez ere.
- c) Kazetariak etorkizunean ere zintzotasunez eta objektibotasunez jokatu beharko du.
- d) Kazetariak gero eta informazio gehiago eskaintzen dute, baina herritarrek ez dute astirik horiek denak beren interesen arabera jarraitzeko.

**15.- Zein da besteekin zer ikusirik EZ daukan esaldia?**

- a) Gora egingo du kontsumo prezioen indizeak, non petrolioaren prezioaren gorakada ez baita eten.
- b) Petrolioaren prezioaren gorakada eten ezean, kontsumo prezioen indizeak gora egingo du.
- c) Kontsumo prezioen indizeak gora egingo du, non eta petrolioaren prezioaren gorakada eteten ez den.
- d) Kontsumo prezioen indizeak gora egingo du, baldin eta petrolioaren prezioaren gorakada eteten ez bada.

**16.- Aukera bat EZ da ondo txertatzen hutsunean. Zein?**

Esperientziak agerian uzten du izangaien kopuru txiki batek gaintitzen duela atalase hori, eta horrek, ....., aukerak asko murriztea eragin dezake.

- a) azken finean
- b) azken buruan
- c) azken batean
- d) azken berean

**17.- Bete ezazu hutsunea termino egokia aukeratuta.**

1999ko urtarrilaren 1az geroztik, altxor letren eta estatuaren bonu eta obligazioen ..... berrien balio nominala 1.000,00 eurokoa da.

- a) jaurtipen
- b) jaulkipen
- c) jazarpen
- d) jaraunspen

**18.- Zein da besteekin zer ikusirik ez daukan esaldia?**

- a) Eguneko zentroaren erabiltzaileei jarduera psikoterapeutikoak eskaini behar zaizkie, ahalmen funtzionalak eta psikikoak indartze aldera.
- b) Eguneko zentroaren erabiltzaileei jarduera psikoterapeutikoak eskaini behar zaizkie, ahalmen funtzionalak eta psikikoak indartzearen.
- c) Eguneko zentroaren erabiltzaileei jarduera psikoterapeutikoak eskaini behar zaizkie, ahalmen funtzionalak eta psikikoak indartuaren.
- d) Eguneko zentroaren erabiltzaileei jarduera psikoterapeutikoak eskaini behar zaizkie, ahalmen funtzionalak eta psikikoak indartzeko asmoz.

**19.- Aukera ezazu testuarekin bat datorren esaldia.**

“Makroekonomiaren ikuspuntutik Estatu Batuak izango dira aurten ere munduko ekonomiaren motorra, nahiz eta han ere hazkundea moteldu egin den. Dena den, erraldoi estatubatuarrak Txina du lehiakide, bi ekonomia horiek izango baitira munduko gainerakoen dinamizatzaile nagusiak. Europa eta Japonia, berriz, euren dibisen sendotasunaren eta barne-eskari apalaren ondorioz, ahul ibiliko dira”.

- a) Estatu Batuak eta Txina izango dira munduko ekonomiaren dinamizatzaile nagusiak, euren dibisen sendotasunari esker, batez ere.
- b) Europak eta Japoniak ere munduko ekonomiaren dinamizatzaile izan nahi badute, dibisa sendoagoak beharko dituzte.
- c) Estatu Batuak eta Txina izango dira munduko ekonomiaren motorrak, mikroekonomiaren ikuspuntutik begiratuta.
- d) Europa eta Japonia ahulago ibiliko dira, besteak beste, barne-eskari apalaren ondorioz.

**20.- Bila ezazu “baltzu publiko” hitzaren definizioa.**

- a) Jende guztiari zabalik dagoen bilera, bereziki herri-erakunde bati dagozkion arazoez hitz egiteko.
- b) Merkataritza-elkartea da, partaide nagusi honako entitate hauetako bat duena: Estatuko administrazioa; haren menpe dauden erakunde autonomoak; zuzenbide publikoaren barruan sartzan diren gainerako estatu-entitateak; eta, azkenik, nortasun juridikoa duten zuzenbide publikoko entitateak.
- c) Herri-administrazioaren ekonomi jardueraren egoera, diru-sarrerak eta gastuak konparatuz neurtzen duen kontabilitate-tresna.
- d) Herri-erakundeek hirigintzako proiektuak esleitzeko ezinbestean argitaratu behar duten agiria, kontratua egikaritzekoan bete behar diren oinarriko baldintza teknikoak zehazten dituen.

**21.- Aukera ezazu esaldi zuzena.**

- a) LHK-k (Lan Harremanetarako Kontseilua) ez duela dagokion eginkizuna betetzen adierazi du UGTK.
- b) LHKak (Lan Harremanetarako Kontseilua) ez duela dagokion eginkizuna betetzen adierazi du UGTK.
- c) LHK-k (Lan Harremanetarako Kontseilua) ez duela dagokion eginkizuna betetzen adierazi du UGT-ek.
- d) LHKk (Lan Harremanetarako Kontseilua) ez duela dagokion eginkizuna betetzen adierazi du UGTek.

**22.- Aukera ezazu ondorengo testuari ondoen egokitzen zaion izenburua.**

“Jazarpen egoeraren aurrean dugun erreakzioa norberaren ezaugarrien arabera aldatzen den bezalaxe, erasotzailearen erasoek norbanakoarengan dituzten ondorioak ere hainbat faktoreren arabera aldatzen dira. Edozelan ere, ondorioak suntsitzaileak dira eta gizabanakoaren bizitzaren hainbat esparrutan eragingo dute”.

- a) Laneko jazarpenaren biktima motak.
- b) Jazarpenaren ondorioak beti dira negatiboak.
- c) Zer egin jazarpen egoeraren aurrean.
- d) Jazarpenaren biktimaren ezaugarriak suntsitzaileak dira.

**23.- Non dago “gordailu” OKER erabilita?**

- a) Euskadiko Museoen Sistema Nazionalako museo eta bildumek kultura ondarea osatzen duten ondasunak jaso ahalko dituzte gordailuan, betiere horiek gordetzeko duten ahalmenaren eta sortze beretik dituzten helburuen arabera.
- b) Hain zuzen ere, ondare digitala Euskadiko Liburutegiaren elementu adierazgarria izango da, zeren eta, euskal bibliografiaren gordailu den aldetik, bere ardura da, besteak beste, Euskadiko bibliografia-ekoizpena eta euskaren hizkuntza-esparruarekin erlacionatutakoa jasotzea, kontserbatzea eta zabaltzea
- c) Hezeguneez biziaren garapenerako dituzten baldintza bereziek eta hezegune gehienetan agertzen den elikagaien aberastasunak ekosistema hauek animalia-komunitate jori eta interesgarrien gordailu bihurtu dituzte.
- d) Bankuetako bezeroek oso harrera ona egin diete eperako gordailuei, eta horien artean epemuga luzeenak dituztenak eta dirua eskuratzeko erraztasunik handienak ematen dituztenak dira arrakastatsuenak.

**24.-Aukera ezazu hasiera egokia.**

..... Lehenik, guztiok bizi gara komunitate kulturaletan. Bigarrenik, kultura bakoitzak baditu bere alde onak eta bere ahuluneak. Ezinbestekoa da, hortaz, haien arteko elkarriketa. Eta, horretarako, aukera berdinak izan behar dituzte denek. Eta hirugarrenik, munduko kulturak elkarren osagarri dira. Guztiek daukate elkarrengandik zer ikasi.

- a) Hiru euskarritan oinarritzen da multikulturalismoa.
- b) Hiru euskarritan oinarritzen da mendebaldeko bizimodua.
- c) Hiru aukeratan oinarritzen da multikulturalismoa.
- d) Hiru kulturatan oinarritzen da gizartea.

**25.- Aukera ezazu esaldi zuzena.**

- a) Energia beriztagarrien sektorean egindako inbertsioek ez dute gobernuak uste adina lanposturik sortu.
- b) Energia beriztagarrien sektorean egindako inbertsioek ez dute gobernuak uste bezain lanpostu sortu.
- c) Energia beriztagarrien sektorean egindako inbertsioek ez dute gobernuak uste hainbat lanposturik sortu.
- d) Energia beriztagarrien sektorean egindako inbertsioek ez dute gobernuak uste adina lanpostu sortu.

**26.- Bete ezazu hutsunea termino egokia aukeratuta.**

Biztanle bakoitzeko ur-kontsumoaren gorako joera aldatzeaz gain, 2010. urterako %20 murriztu nahi dira ..... izaten diren galerak.

- a) ur-jauzian
- b) ur-horniduran
- c) ur-emarian
- d) ur-doikuntzan

**27.- Aukera ezazu puntuazio-markak egoki jarrita dauzkan aukera.**

- a) Esate baterako, tartariarentzat bekatua zen, are gehiago delitu larria, aiztoa sutan jartzea, zaldia bridaz jotzea, hezur batez beste bat haustea, aitzitik; ez zuten sinesten bekatu zirenik zina haustea, inoren gauzak lapurtzea, inori irain egitea, inor hiltzea.
- b) Esate baterako; tartariarentzat bekatua zen (are gehiago, delitu larria) aiztoa sutan jartzea, zaldia bridaz jotzea, hezur batez beste bat haustea; aitzitik, ez zuten sinesten bekatu zirenik zina haustea; inoren gauzak lapurtzea, inori irain egitea, inor hiltzea.
- c) Esate baterako tartariarentzat bekatua zen, are gehiago delitu larria, aiztoa sutan jartzea, zaldia bridaz jotzea, hezur batez beste bat haustea, aitzitik, ez zuten sinesten bekatu zirenik zina haustea, inoren gauzak lapurtzea, inori irain egitea, inor hiltzea.
- d) Esate baterako, tartariarentzat bekatua zen –are gehiago, delitu larria– aiztoa sutan jartzea, zaldia bridaz jotzea, hezur batez beste bat haustea; aitzitik, ez zuten sinesten bekatu zirenik zina haustea, inoren gauzak lapurtzea, inori irain egitea, inor hiltzea.

**28.- Bete ezazu hutsunea termino egokia erabilita.**

Ziurtagiria eskatzen duenak bere nortasuna ..... beharko du, baita ordezkatzeko duen entitatearen izenean administrazio-egintzak egiteko edo kontratuak sinatzeko ahalordeak izatea, eta horren dokumentazioa aurkeztea.

- a) bermatu
- b) ziurtatu
- c) egiaztatu
- d) baieztatu

**29.- Aukera ezazu definizioa emateko modurik egokiena.**

- a) Egiaztagiria ekintza, gertaera, erabaki edo horrelakoren bat egia dela baieztatzen duen idatzizko aitortpen ofiziala da.
- b) Egiaztagiria idatzizko aitortpen ofizial bat da, ekintza, gertaera, erabaki edo horrelakoren bat egia dela baieztatzen duena.
- c) Egiaztagiria honako hau da: ekintza, gertaera, erabaki edo horrelakoren bat egia dela baieztatzen duen idatzizko aitortpen ofiziala.
- d) Ekintza, gertaera, erabaki edo horrelakoren bat egia dela baieztatzen duen idatzizko aitortpen ofiziala da egiaztagiria.

**30.- Zein da gaiaren aldetik desberdina den esaldia?**

- a) Delituak ondarearen aurkakoak badira, zigorra ezartzeko, eragindako kalte osoa hartuko da kontuan.
- b) Delituak pertsona askoren ondareari eragiten badio, dagokion zigorra baino gradu bat handiagoa ezar daiteke.
- c) Ondarearen aurkako delituak larritasun nabaria badu, zigorra gogorragoa izan daiteke.
- d) Delitugileak egindako kaltea ordaintzeko aski ondare ez badu, estatua izango da erantzule subsidiarioa.

---

## ORDEZKO GALDERAK

### **31.- Bete ezazu hutsunea termino egokia aukeratuta.**

Zigor Kodearen 60. artikulua zigorra eteteko aukera jasotzen du, baldin eta, ..... eman ondoren, zigorraren zentzuaz jabetzea galarazten duen buru-nahaste larriko egoera iraunkorra hautematen bada.

- a) epai finkoa
- b) epai trinkoa
- c) epai tinkoa
- d) epai irmoa

### **32.- Aukera ezazu bukaera egokia.**

Nahiz eta sektore berean diharduten eta antzeko zerbitzuak eskaintzen dituzten, aurrezki kutxak eta bankuak oso diferenteak dira izatez. Aurrezki kutxek ez dute irabazi-asmorik eta, beren jarduerak sorrarazitako mozkinak gizarteari itzultzen dizkionenez, erakundearen fundatzaileek, administrariak edo kudeatzaileek ez dute mozkin horien parterik hartzeko eskubiderik. Bankuetan.....

- a) ere fundatzaileek eta kudeatzaileek jasotzen dituzte etekinak.
- b) , aldiz, mozkinak jabe eta akziodunen eskutara joango dira.
- c) , ordea, mozkin gehienak gizarteratu egiten dira.
- d) ere akziodunak kapital sozialaren zatien jabe dira.

## ATARIKO PROBA - 4.HE

A eredua

### ERANTZUN ZUZENEN ORRIA

1.	C	2.	B	3.	C	4.	A	5.	D
6.	B	7.	D	8.	A	9.	C	10.	D
11.	A	12.	A	13.	D	14.	C	15.	A
16.	D	17.	B	18.	C	19.	D	20.	B
21.	A	22.	B	23.	C	24.	A	25.	D
26.	B	27.	D	28.	C	29.	B	30.	D

#### ORDEZKO GALDERAK

31.	D	32.	B
-----	---	-----	---